#168
DOAN

2022 · 10 · 05
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

XABIER RAMOS RODRIGUEZ:
“Nire argazkien helburu nagusia naturarekiko errespetua eta ezagutza sustatzea dira” 12-13 or.

NAROA REY GOTXI:
“Modaren bidez Erdi Aroko gizartea nolakoa zen erakutsi nahi izan dugu” 22-23 or.

Euskararen kale erabilera behera

AIARALDEA 2
Kamioiei BI-625 errepidea erabiltzeagatik kobratzeko teknologia
3,5 tona edo pisu gehiagoko ibilgailuek ordainsaria izango dute aurrerantzean

AMURRIO 4
Jose Antonio Fernandez Bravo irakaslea Amurrio Antzokian izango da
Aiaraldeko eskola publikoek trebakuntza saioa antolatu dute hezkuntza adituarekin

LAUDIO 10-11
1936ko gudu zelai bilakatu da Ermualde egun batez
Guda Zibilaren pasadizoak antzeztu zituzten iragan urriaren 1ean santutegian

INGURUMENA 12-13
Zer nolako eragina du aldaketa klimatikoak tximeletengan?
Galderari erantzuna eman zioten Zerynthia elkarteak eskainitako hitzaldian

KIROLA 26-27
Arietta Ruiz Espainiako hezte klasikoko txapelketan izan da
Amazona gazteak bigarren postua lortu zuen Madrilen izandako txapelketan

herriz herri

Aiaraldea

Arakaldon jarri dute bidesari bat eta beste bi Arrankudiaga-Zollon, Labekon eta Bakiolan. 3,5 tona edo pisu gehiagoko ibilgailuek ordainsaria izango dute BI-625 errepidea baliatzeagatik.

Kamioiei BI-625 errepidea erabiltzeagatik kobratzeko teknologia instalatu dute Aiaraldean

Metalezko arkuak instalatu dituzte sistemekin. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Ekainean Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen ordura arte doakoak ziren zenbait errepideren erabileragatik kobratzen hastea. Neurria bost bidetako zati batzuetan sartuko da indarrean; N-240an, A-8an, N-636an, Txorierriko korridorean eta BI-625ean.

Aiaraldeko kasuan, neurria laster egongo da indarrean eta BI-625 errepideko 14,75 kilometroko tarte bat egongo da egitasmoaren barruan; zehazki, Laudiotik Basaurira doana.

Horrenbestez, administrazioak ekin dio ordainketa eta kontrola ahalbidetuko duen teknologia instalatzeari; Arakaldoko gasolindegiaren inguruan, eta Arrankudiaga-Zolloko Labeko eta Bakiola guneetan.

Jarritako arku horiek 3,5 tona edo gehiagoko ibilgailuen matrikulak irakurriko dituzte eta kamioiek egindako ibilbidearen arabera egingo dute kobrantza automatikoki, Interbiak sozietateari datuak bidalita. Horretarako Via T gailua izan beharko dute garraiolariek, edo euren matrikula kontu korronte bati lotu. Izan ere, ibilgailuek ez dute gelditzeko beharrik izango ordainketa egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi du tarifak ordaintzen ez dituztenei -momentuz ez da publikoa zenbat balioko duten- %20ko gainkarga kobratuko diotela, hasteko. Hala ere, ordaintzen ez badute, zigor neurriak hartuko ditu erakundeak.

Ordainsarien helburua

Hedabidetan azaldu duenagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak helburu anitzak ditu politika berri honekin. Alde batetik, trafiko astuna gehien erabiltzen diren errepideetatik atera nahi du, 4.000 ibilgailu Supersur eta AP-8 azpiegituretara bideratuta. Horretarako, ideia da Supersurraren ordainsaria errepide arruntena baino merkeagoa izatea.

Bizkaiko Foru Aldundiak trafiko astuna gehien erabiltzen diren errepideetatik atera nahi du, 4.000 ibilgailu Supersur eta AP-8 azpiegituretara bideratuta

Esan bezala, momentuz, foru erakundeak ez du zehaztu kilometro bakoitzaren balioa, baina prezioak ez du gainduko 0,25-0,27 euro kilometro bakoitzeko.

Horrez gain, istripu kopurua %10 murriztu nahi du erakundeak, eta kutsadura %13. Izan ere, aldundiak aurreratu du gutxien kutsatzen duten ibilgailuek hobariak izango dituztela.

Udalen erantzuna

Aiaraldea Komunikabidea harremanetan jarri da ordainsariak hartu dituzten eskualdeko bi udalekin. Jabi Asurmendi Arakaldoko alkateak aipatu du euren herrian ez dutela horrenbeste nabarituko euren eragina: "BI-625 errepidea ez da herrigunetik igarotzen, hortaz, ez dugu sumatuko. Hala ere, helburua bada kamioiak bide horretatik kentzea, suposatzen dut eragin positiboa izango duela herriko sarreran".

Txutxi Ariznabarreta Arrankudiaga-Zolloko alkateak ordea, ez du balorazio positiborik egin: "Bizkaiko Foru Aldundiak udalarekin hitz egin gabe jarri ditu gailuak. Horregatik ez dugu ofizialki baloratu. Ziurrenik, etorkizunean egin beharko dugu, emaitzak ikusgarriak direnean. Izan ere, kamioiak errepidetik kentzeko instalatu dutela adierazi dute hedabidetan, baina etorkizunean bestelako helburuekin baliatu ditzakete". Berez, alkateak aipatu duen moduan, hainbat ibilgailu erabiltzaileren ustez, ordainsari horiek auto arruntei kobratzeko ere bideratuko dituzte etorkizunean.

herriz herri

Aiaraldea

Zabalik dago Euskaraldian izena emateko epea

Euskaraldiaren furgoneta ibiltariak Aiaraldea bisitatu zuen. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra luzatuko da Euskaraldiaren hirugarren edizioa, eta honezkero zabalik dago euskararen aldeko ariketa sozial erraldoian izena emateko epea. Aurreko edizioetan bezala, herritarrek egitasmoak iraun bitarteko bi asteetan erabiliko duten rola aukeratu beharko dute: *ahobizi* edo *belarriprest*. *Ahobiziek* euskara lehenetsiko dute uneoro, eta ez dute hizkuntza aldatuko euskara ulertzen duten gainerako herritarrekin. *Belarriprestek*, ordea, unean une erabakiko dute zein hizkuntza erabili, baina gainerakoek jakingo dute badela haiengana euskaraz zuzentzerik, hau da; euskara ulertzeko gai direla.

2020ko edizioan bezala, entitateek ere parte hartzeko aukera izango dute aurtengo edizioan ere. Horretarako, *ariguneen* figura erabiliko dute.

Izen ematea zabalik

Iragan irailaren 29an ireki zen izena emateko epea. Parte hartu nahi duen orok euskaraldia.eus atarian eman beharko du izena. Aurreko edizioren batean parte hartu duten horiek parte hartzea berretsi beharko dute soilik. Gainerakoek, bide berdina jarraituz eman beharko dute izena.

Aiaraldean abian

Aiaraldean asteak daramatzate Euskaraldiko batzordeak herriz herri eratzen. Iragan astean Faktorian egin zuten ariketa soizalaren aurkezpena eskualdeko entitate desberdinen aurrean, eta asteburuan Euskaraldiaren furgoneta ibiltariak Amurrio eta Laudio bisitatu zituen.

Gurasoleku egitasmoaren bigarren edizioa aurkeztu dute

Laudioko Kasinoan aurkeztu zuten egitasmoa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Gurasoleku egitasmoaren bigarren edizioa aurkeztu zuten iragan astean Laudioko Kasinoan. Amurrion abiatutako proiektuak Laudiora ere egingo du jauzi ikasturte berri honetan. Izan ere, Laudioko Udal Euskaltegia eta haur-eskola eta haur hezkuntzan ari diren ikastetxe guztiek heldu diote erronkari: Matxintxu haur-eskola, Fabian Legorburu ikastetxea, Lamuza eskola, La Milagrosa ikastetxea, Laudio ikastola eta Latiorro ikastetxea.

Laudioko hezkuntza zentro horiei, iaz Amurrioko esperientzian parte hartu zuten heziguneak batuko zaizkie: Amaurre ikastetxea, Aresketa ikastola, Mendiko eskola, Zabaleko ikastetxea eta Tantaka eta Tipitapa haurreskolak.

Egitasmoaren bultzatzaileek "pozgarritzat" jo dute Laudioko heziguneen erantzuna, bai eta iaz Amurrion engaiatutako eragileek berriro ere ekimenean parte hartzeko erakutsitako prestutasuna, ere. "Erantzun hau pozgarria da oso guretzat eta lanean jarraitzeko hauspoa ematen digu", adierazi zuten Laudioko Kasinoko aurkezpenean.

"0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familien baitan euskararen transmisioa bultzatzea" da Gurasoleku egitasmoaren helburu nagusia. Horretarako, eragile ezberdinen arteko elkarlana baliatu, sentsibilizazioa landu, marko teoriko bat azaldu eta tresna pertsonalizatuak eskainiko ditu proiektuak. Hilabeteko lanaren emaitza da gaur aurkeztutako Gurasolekuren bigarren edizioa. Hasteko, 0-5 urte bitarteko haurren irakasle-tutoreei formakuntza saioak eskaini dizkiete; "euskararen aurrean gurasoak sentsibilizatzeko bideak eta aholkuak azalduz eta eskaintza helarazteko tresnak emanez". Horrez gain, gurasoekin ere bilerak egin dituzte; euskararen inguruko gogoetak partekatu eta euskalduntzean pausoak emateko aholku praktikoak eskaintzeko.

Proiektuan parte hartu nahi duten familiek hezkuntza zentroetako zuzendaritzekin harremanetan jartzea besterik ez dute.

herriz herri

Amurrio

Urriaren 8an trebakuntza hitzaldia eskainiko du irakasle madrildarrak eta jadanik Amurrio Antzokiko edukieraren erdia bete dute antolatzaileek.

Jose Antonio Fernandez Bravo irakaskuntzan adituarekin beteko dute Amurrio Antzokia ikastetxe publikoek

Jose Antonuo Fernandez Bravo irakaslea. **BBVA Aprendemos juntos.**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Aiaraldeko hainbat ikastetxe publiko (Zabaleko, Mendiko Eskola, Zaraobe Institutua, Latiorro, Lamuza, Laudio Institutua, EPA Laudio, Okondo Eskola, Fabian Legorburu, Etxaurren Ikastola eta Arteko Gure Ama) antolatzen ari dira Jose Antonio Fernandez Bravoren trebakuntza saioa Amurrio Antzokian. Urriaren 8an izango da hitzordua, 10:00etatik 13:00ak bitartean, hain zuzen.

Antolakuntzan lanean ari den Arteko Gure Amako ikastetxeko irakasle eta berrikuntza arduradun Roberto Ruesgas Arnaizek azaldu du hizlaria Madrilen bizi den pedagogo eta prestatzailea dela: "Bere bizitza irakaskuntzari eskaintzen dio, eta 14 urtez Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea izan bada ere, azken urteotan unibertsitateko irakasle bezala dihardu. Matematikaren didaktikan aditua da, hezkuntza eta matematikaren ikaskuntzari buruzko 100 lan baino gehiago idatzi dituelarik. Hezkuntza berrikuntzaren inguruan ikertu eta idazten du". Artziniegako hezkuntza zentroko zuzendariaren aburuz, Fernandez Bravoren sistema laburbiltzen duen filosofia da "irakastea ikasten duen burmuinetik". Roberto Ruesgasek argitu du hiru orduko trebakuntza izan arren, lehen hezkuntzako didaktikako -bereziki matematiketan- adituaren hitzaldia hastapen saioa izango dela. Hori dela eta, bere ustez, interesa sentitzen dutenek Fernandez Bravoren lanak irakurtzeko parada izango dute.

Are gehiago, irakasleak aholkua eskaini die hitzaldira bertaratuko direnentzat: "Abiapuntu bezala, liburu eta bideo bana gomendatu nahiko nituzke. Alde batetik *La sonrisa del conocimiento*, bere metodoa oso ondo azaltzen duen liburua da. Oso irakurketa gomendagarria. Bestalde, *Cuaderno de viaje de un maestro* bideoa, 'BBVA Aprendemos juntos'-ek grabatu zion bideo bat da. Bertan entzule batzuen galderak erantzuten ditu. Oso gomendagarria baita ere. Dagoeneko, bi milioi bistaratze baino gehiago ditu.

Hitzaldiaren ideia

Solasaldia antolatzeko asmoa Roberto Ruesgasek berak sustatu du: "Madrilen, Experto en la Didáctica de las Matemáticas en Educación Primaria graduondoa egiteko aukera izan nuen berarekin. Bederatzi asteburu pasa nituen Madrilen ikastaro hau egiten, baina lehenengo asteburuan, bera ezagutu eta jarraian egin zigun sarrera entzun eta gero, argi izan nuen nire eskolako klaustrokideek entzun beharreko mezua entzuten ari nintzela. Guztiz liluratuta bueltatu nintzen eskolara, eta aukera hau Aiaraldeko Eskola Publikoetako beste zuzendariekin konpartitu nuen".Eskualdeko ikastetxe publiko arabarrek hilean behin egiten dute Zuzendari Mintegia eta esparru horretan proposatu zuen hitzaldia eta harrera ona izan zuen egitasmoak irakasleen prestakuntzarako eta hobekuntzarako. "Lan handia egiten da Aiaraldeko Eskola Publikoetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua etengabe hobetzeko", ziurtatu du Roberto Ruesgasek.Ekintza antolatzeko erakunde publikoen babesa izan dute hezkuntza zentroek. Hain zuzen, Aiarako Kuadrillak diruz lagundu du eta Amurrioko Udalak Antzokia lagatu die.

Izena emateko aukera gutxi

Gauzak horrela, trebakuntza saioan parte hartzea zaila izango da ikastetxe publikoetan lan egiten ez duten irakasleentzat, jadanik edukieraren erdia bete baitute, astebete baino gehiago falta bada ere: "Oraindik Aiaraldeko eskola batzuen izen ematearekin jarraitzen dugu eta, hau dela eta, ezin diogu jendeari izena emateko aukerarik eskaini. Seguru nago gurasoentzat edota hezkuntza munduan interesa duen edozeinentzat oso interesgarria izango litzatekela, baina tokia egongo denik ezin dugu bermatu".

herriz herri

Amurrio

Amurrioko Udalak hornidura merkatu zaharra zaharberritu eta zentro soziokultural bihurtuko du

Onartutako proiektuak eraikina erabilera berrietara egokitzeko egingo diren jarduketak biltzen ditu. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Udalak osoko bilkuran onartu zuen ostegunean Foru kaleko hornidura merkatu zaharraren eraikina zaharberritu ahal izateko proiektua, zentro soziokultural bihurtzeko. Proiektua onartu ondoren, laster irekiko da obraren lizitaziorako prozesua.Onartutako proiektuak eraikina erabilera berrietara egokitzeko egingo diren jarduketak jasotzen ditu. Horretarako, ia guztiz aprobetxatuko den egitura sendotzeaz gain, barrualdea berregokitzea aurreikusten da, hainbat erabilera egokitzeko aukera emango duen espazio zabalarekin, bai eta beheko solairua eta erdisotoa komunikatuko dituen igogailu batekin ere, irisgarritasuna bermatzeko. Inguratzailea, fatxada eta estalkia ere berriztatuko dira. Proiektua onartu ondoren, obren lizitazioarekin hasteko prozesua hasiko da. 1.200.401 euroko inbertsioa egingo da, eta urtebeteko epea egongo da lanak egiteko. Berriki aurkeztu den Udal Ekipamenduen Plana gida erabilgarria eta beharrezkoa izan da udal-azpiegiturak eta horietan ematen diren zerbitzuak pixkanaka berrantolatzeko. Alde batetik, planak kultur ekipamenduen sarea sortzea jasotzen du, eta merkatu zaharra zaharberritzea eta egokitzea da herriko hirigunean kultur sare hori sortzeko lehen urratsetako bat. Horretarako, eraikin berriak umeentzako eta helduentzako liburutegi berria, ikasketa-gelak, mediateka eta KZgunea hartzea aurreikusi da.

Udal Ekipamenduen Planean jasotzen den bezala, ume eta helduentzako liburutegia, ikasketa-gelak, mediateka eta KZgunea hartuko ditu

Urduña

Independentzia aldarrikatu zuten ehundik gora lagunek Urduñan

Ekitaldi politikoa egin zuen Sortuk Foru Plazan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

'Euskal Herri aske, sozialista eta feminista' aldarrikatu zuen iragan urriaren 1ean Sortuk, Urduñan ospatutako Independentzia Egunean. Bide horretan, "herria eraikitzen jarraitzeko beharra" azpimarratu zuten Foru Plazan egindako ekitaldian, "behetik eta ezkerretik".

Goizetik gauera jendetza batu zen alderdi independentistak antolatutako egitaraura, ekitaldi politikotik hasi eta iluntzeko KOP taldearen eta Laket erromeriaren kontzertuetara.

Aiara

Beotegiko bolatokia berriro abian

1919an eraiki zuten bolatokia. **Asier Petralanda**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Dozenaka lagun elkartu ziren iragan urriaren 1ean Beotegiko bolatokiaren inaugurazioan. 1919an eraikitako bolatokia birgaitu dute azken hilabeteetan, eta egun osoko egitaraua prestatu zuten azpiegitura berriro ere erabilgarri dagoela ospatzeko. Bola tiradak ez ezik herri bazkariaz gozatzeko aukera izan zuten ere Aiarako herrian elkartutako bizilagunek.

herriz herri

Laudio

Espazio publikoaren erabilera arautzen duen araudi berria du Laudiok. Ordenantza desberdinak bateratu dira testu berrian. EH Bilduren iritziz, ordenantzak “eremu publikoaren hiper-erregularizazioa” dakar.

Espazio publikoaren erabilerarako araudi berria onartu du Udalak

Udal Osoko Bilkuran onartu zuten testua; talde politiko guztiek egin zuten alde, EH Bilduk izan ezik. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Azken Udal Osoko Bilkura baliatu zuen Udal Gobernuak Laudioko espazio publikoaren erabilera arautzen duen ordenantza berria onartzeko. Testua ordezkaritza duten alderdi politiko guztien, udaleko sailen, herritarren eta herriko saltokien eta ostalarien arteko bi urteko prozesuaren emaitza da.

Araudi berriak orain arte indarrean zeuden eta esparru berdinean eragiten zuten ordenantza desberdinak bateratu egin ditu, "bikoiztasunekin amaitu eta gidalerro horiei guztiei koherentzia emateko asmoz". Horrez gain, araudia “modu intuitibo eta errazean" laudioarren esku egoteko ahalegina adierazi du Ander Añibarro alkateak; "herritar guztiek jakin dezaten bizikidetza bermatzeko espazio publikoa nola eta zein helbururekin erabili behar den”.

Udal talde guztiek bozkatu zuten ordenantza berriaren alde EH Bilduk salbu; azken hau abstenitu egin zen. Ordenantzak "eremu publikoaren hiper-erregularizazioa" ekarriko du koalizio abertzalearen iritziz. "Irtenbide zigortzailea eskaintzen du eta adierazpen askatasunaren eta bestelako oinarrizko eskubideen aurka egin dezake", adierazi du Aitor Burgoa EH Bilduko zinegotziak. "Bere aplikazio zorrotzak pertsona zaurgarrienak kaltetu ditzake", gaineratu du.

Aldaketak ostalaritzan

Ostalaritza lokalen terrazen gaineko araudia izan da ordenantza berrian sakonen landutako gaietako bat. “Ordenantzaren filosofia, hain garrantzitsua den udalerriko ostalaritza jarduera bultzatzearen eta terrazak okupatzearen eta oinezkoen eta auzokideen arteko bizikidetzaren artean oreka bilatzea da”, adierazi du Ander Larrinaga Hiri Garapeneko zinegotziak. Gauzak horrela, aurrerantzean lurrera iltzatutako elementuek 90 metro koadroko zabalera izan ahalko dute gehienez, eta beste aukerarik aurkezten ez duten egoera berezietan jarri ahalko dira mahaiak eta aulkiak aparkaleku publikoen gainean. "Sinplifikazio ariketa batean" terrazak jartzeko denboraldiak hirura mugatu dira araudian: urte osoan zehar, denboraldi luzea (apirila-urria) eta udako denboraldia (ekaina-iraila). Ordutegiei dagokionean ere, aldaketak proposatzen ditu testuak. Aurrerantzean, ostalaritza lokal guztiek erregimen berdina izango dute, "lizentziaren izaerak baldintzatu gabe". Horren ordez, ordutegi desberdinak ezarriko dituzte udan zein neguan; baita aste barruan eta asteburuetan ere.

Kultur jarduerak eta obrak

Udalerriko eragileek espazio publikoaren erabilera eskatzeko prozedurak bateratu egin ditu Udalak ordenantza berrian. Tokiko gobernuaren hitzetan, "eskaerak egiteko bideak sinplifikatzen dira modu honetan". Araudiak jasotzen duen beste berritasuneta-ko bat kultura jardueretan animaliak erabiltzeko debeku orrokorra da. Bide beretik obrak egiten dituzten herritarrentzako erraztasun burokratikoak ematen ditu ordenantzak; besteak beste, andamioak, plataformak edota edukiontziak jartzerako orduan.

EH Bilduk balorazio desberdina egin du kultur jarduerek testuan jasotako araudiaren inguruan. "Lehen baimendutako jarduera askok debekua jaso dezakete hemendik aurrera, kontrol zorrotz batera eramango dira adierazpen artistiko eta kultural asko, baimenen burokratizazioa eta epeek suposatzen duten trabak, edozein ekitaldi sozial edo kultural egiteko, adierazpen askatasunaren eta sormenerako kaltegarria ikusten dugu", azpimarratu du Aitor Burgoa oposiziko zinegotziak. "Herri bizia , partehartzailea eta adierazpenerako gaitasun osoa duena nahi dugu. Ordenantza honek ez du hau errazten", laburbildu du.

Prozesu luzea

Bi urteko prozesuaren emaitza izan da atzo onartutako testua. Besteak beste, talde politikoekin edota ostalari eta merkatariekin landu du gaia Udal Gobernuak. Otsailean aurkeztu zuen testuaren zirriborroa eta honi ekarpenak egiteko aukera eman zion herritarrei. Herritar talde batek dinamika jarri zuen abian, zirriborroan jasotako hainbat atal aldatzeko helburuarekin. Besteak beste, hasierako testu horrek, kalean lo egiteko debekua jasotzen zuen bere 20. artikuluan, "desegokitzat" jotzen zituen espazio publikoaren beste erabilera batzuekin batera. Horien artean zeuden, hala nola herriko iturrietan bainatzeko debekua.

EH Bilduk ere 20. artikulua osorik ezabatzeko eskatu zuen ekarpenak jasotzeko epean. Izan ere, Aitor Burgoa zinegotziak azaldu duenez, "moldatu besterik ez dute egin".

3.000 euro arteko isunak

Ordenantza berria betetzen ez duten herritarrei isuna ezarriko die Udalak. Hiru isun mota bereizi ditu, arau-haustearen larritasunaren araberakoak. Hutsegite arinek 750 euroko isuna suposatuko dute. Larriak 750 eta 1.500 euro artekoak izango dira. Azkenik, oso larriak diren arau-husteek 1.500 eta 3.000 euro arteko isuna ekarriko dute. “Zigor horien bidez, sen ona aktibatu eta bandalismoa saihestu nahi dugu, baita osasungarritasuna edo bizikidetza bermatu ere”, adierazi du Ander Añibarro alkateak.

Laudio

“Emakumeen buru osasuna eta ongizatea zaintzeko” tailerra

Mamiak proiektua aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten astelehenean Laudion **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Emakumeen buru osasuna sendotzea izango da 'Mamiak' ekimenaren helburua. Astelehenean aurkeztu zuten ikastaroa Lezeaga aretoan Loli Muriel Berdintasun zinegotziak, Yolanda Perez udaleko zerbitzu teknikaria, eta Maria Angeles Becerro mediku psikoterapeuta eta psikodramatistak, buru osasunean adituak denak. asteartean hasi zen tailerra, 20 lagunen parte hartzearekin. Hala, urritik abendura 10:00etatik 13:00etara elkartuko dira asteartero Lezeaga aretoan bertan. "Taldean jasotzen duten babes emozionalak antsietate maila murriztea eragiten die, ohitura eta egoera sozioemozionalak garatzearen bitartez", adierazi zuen Loli Muriel berdintasun zinegotziak. Partaideek terapeutarekin saio bat egingo dute aurrez, aurreratu dutenez. Iaz egin zuten lehen esperientzia, eta 17 emakumek hartu zuten parte. "Oso harrera ona izan zuen", Yolanda Perezen hitzetan. "Taldeak beharrezkoa du horrelako foro eta espazioa, egunerokotasuneko ezinegonarekin hausteko. Udal zerbitzuengandik babestuak sentituko dira, hainbat erraminta emango baizaizkie", erantsi zuen. Nabarmendu zutenez, hasieratik amaierara kide guztiek jarraitu zuten ikastaroa: "Horrek erakusten du taldeak lortutako kohesio, ongizatea eta babesa".

Maria Angeles Becerroren esanetan, "soluzioa ez dago pildoretan". Hargatik, saioen aurretik partaideen egoeren identifikazioa egiten dute eta gero psikodrama teknikaren bidez lantzen dute: "Eginez ikasten dugu. Gure pisu psikologikoetarako oso erraminta baliagarria da, eta sakonera doa. Horregatik deitzen da programa 'Mamiak ser profunda mente mujer'".

Besteak beste, antsietatearen kontra borrokatzeko erlaxazio teknikak irakatsiko dituzte. "Baina askoz harago joango gara, emakume izateko moduetara. Emakume subjektuen eraikuntza jorratuko dugu, zaintzaile rolei erreparatuta. Ohikoan, besteak zaintzeko gaude, ez gure buruak. Hori kulturalki ikasitakoa da, eta horregatik, espazio propioak sustatuko ditugu, elkar zaindu eta emakumeen beharrei erantzuteko espazio eta babeslekuak eraikiko ditugu". 30 urte baino gehiago daramatza Becerrok programa gidatzen, eta horregatik, emaitza positiboa izatea espero du, aitortu duenez. "Isolamendutik komunitatera jauzia ematea da helburua, koronabirusak isolamendu asko eragin baitu. Ez da tratamendua egitea bakarrik, komunitatearen pertenentzia sentitzea baizik. Zentzu horretan, iazko taldeko askok komunitate bizitzari heldu diote".

Artziniega

Erretes Tudelak 21.240,64 euroko dirulaguntza jasoko du San Roke baseliza konpontzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Erretes Tudelak 21.240,64 euro jasoko ditu San Roke ermita zaharberritzeko. Horrela adierazi du Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, lurralde historikoko eta Trebiñuko elementu txikiak, ermitak eta eraikinak kontserbatzeko eta zaharberritzeko deialdia dela eta.

Guztira, hamar proiektu babestu ditu foru erakundeak eta dirulaguntzak ez du ordainduko obraren kostu osoa. Gehienez, programa honek %80 finantzatzen du, hortaz, Erretes Tudelak bitartekoak eskuratu beharko ditu baselizan esku hartzeko.

Aldundiak, guztira, hamar proiekturen zaharberritzea lagunduko du diruz, ia 300.000 euroko inbertsioa guztira. Hauek dira gainerako proiektuak: Gesaltza Añanako harresia, Aguraingo harresia, Bastidako Udaletxea, Legutianoko Magdalena ermita, Otobarrengo Santa Marina ermita, Berganzoko Larreko Ama Birjinaren ermita, Samianoko errota, Untzako errota, Igaiko zubia.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

HOTEL ORDUÑA PLAZA
**** Balneario
ZURE EZKONTZA GUREKIN

XVIII.mendeko eraikuntza klasikoa
Aretoaren edukiera: 250 pertsona
Gonbidatuentzako ostatua
Ezkontza zibiletarako barruko patioa eta koktela
Ezkontzetako gure dossierra:
www.hotelordunaplaza.com

Foru plaza, URDUÑA Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com www.hotelordunaplaza.com

argazki lehiaketa

'Gau bat Santa Marina mendi tontorrean' eta 'Lo eta lo' irudiek irabazi dute Aiaraldeko Udako Argazki Lehiaketa, eta Luis Miguel Escudero eta Oskar Sanchez aiaraldearrek eskuratuko dituzte sariak, hurrenez hurren.

Aiaraldeko Udako Argazki Lehiaketak baditu irabazleak

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Irailaren 29an amaitu zen Aiaraldea Komunikabidearen aurtengo Udako Argazki Lehiaketa. Aurreko egunean aipatu bezala, 'Mundua' kategorian lehia estua egon zen eta 'Aiaraldea' atalean, aldiz, argi gailendu zen Luis Miguel Escudero, *Gau bat Santa Marina mendi tontorrean* lanari esker. Eskualdetik kanpoko esparruan, ordea, hiru irudiren artean egon da borroka ia azken unera arte. *Lo eta lo* argazkiak 274 boto izan ditu, *Paradisua* irudiak 268 eta *Turkesa* lanak, aldiz, 230. Lehenengo bien egilea Oskar Sanchez izan da eta hirugarrena, ordea, Gorka Fernandez Crespok hartu zuen.

Gauzak horrela, irabazleek honako sari hauek jasoko dituzte: Laudioko Fabrik tabernan 2 lagunentzako afaria eta Ondarruko Arrigorri aterpetxean 2 lagunentzako gaua eta gosaria.

Guztira, kalitate handiko 93 argazki jaso dituzte lehiaketan eta bozketa fasean 642 erabiltzailek eman dute bere iritzia. Hau da, guztira 1.926 boto egon dira, bakoitzak hiru boza eman behar baitzituen.





argazki lehiaketa

erreportajea

1936ko gudu zelai bilakatu da Ermualde egun batez

Guda Zibilaren pasadizoak antzeztu zituzten iragan urriaren 1ean Ermualden, Euskal Herritik, Kataluniatik eta Espainiako Estatutik etorritako ia 100 boluntariok; dulea 86 urte gertatutakoa ezagutzeko modu didaktiko batean.

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Barrikadak, Eusko Gudarostearen batailoiak, anarkisten errepide kontrol bat, bolborategi bat, erreketeen txapel gorriak... denboran atzera egin zuen iragan urriaren 1ean Laudioko Ermualdeko inguruneak; 1936. urtera hain zuzen ere.

Euskal Herriko, Kataluniako eta Espainiako Estatuko hamaika elkartek, Laudioko Udalaren laguntzaz, Guda Zibilaren berregite historikoa burutu zuten Laudioko santutegiaren inguruan. Guztira 100 boluntariok hartu zuten parte egun osoan luzatu ziren ekintza desberdinetan.

"Historia erakusteko modu entretenigarri eta didaktikoa da hau. Liburuetan murgildu gabe, gerrako pasarte eta egoera desberdinak ezagutzeko parada eskaintzen du", azaldu zion Aiaraldea Komunikabideari Asier Perez de Eulatek, egitasmoaren antolatzaileetako bat.

Museo bizia

Eszena belikoen antzezpenaren aurretik duela 86 urteko egunerokoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten Ermualdera goizean goiz igo ziren dozenaka bisitariek. Boluntarioak taldetan banatu eta gerrako eszena desberdinak antzeztu zituzten, gida batek datu historikoak eta bitxikeriak azaltzen zituen bitartean. Horrela, gerra-eritegi bat, karlisten elizkizun bat edota gudarien batailoi baten aginte postua ziren, besteak beste, bisitatu zitezkeen eszenatokietako batzuk.

Museo biziak 1936ko gerra pasadizo batean murgildu zituen herritarrak. Duela 86 urte, altxamendu faxistak porrot egin zuen estatu kolpe saiakeran, eta hiru urtez luzatuko zen guda zibila piztu zen. "Ohikoa da entzutea gerran bi bando egon zirela, baina bando bakarra egon zen; matxinoen bandoa, hain zuzen ere. Bestea II. Errepublikako gobernu legitimoaren alde mantendu ziren indarrak ziren". Hain zuzen ere, Errepublikaren alde lerratu ziren indar politiko eta militarren batasunak (abertzaleak, komunistak, anarkistak, sozialistak..) lortu zuen faxisten estatu kolpea gelditzea hasiera batean.

"Historialariak eta Guda Zibilean adituak dira berregitean eta antzezpenetan parte hartzen ari direnak, ez dira mozorrotutako figuranteak — nabarmendu zuen Perez de Eulatek — bisitariek gaiarekiko edozein zalantza argitzeko aukera dute, aditu baten eskutik".

Zer gertatu zen Ermualden?

Duela 86 urte ez zen entrenamendurik egon Ermualden, baina inguruak berebiziko garrantzia du gerra kontestuan. Izan ere, bertan dago Bilbo tropa frankistetatik babesteko eraikitako Burdin Hesia, gaur egun

elkarrizketa

ere bisitatu daitekeena. “Antzezpenaren helburua da aiaraldearrei erakustea nolakoak ziren haien aitonen unitateak”. Hain zuzen ere, unitate eta eskualdeko pertsonaia errealak baliatu zituzten gerra pasadizoa antzezteko.

1936an gerra piztu zenean eskualdeko biztanleak bi unitateetan engaiatu ziren nagusiki. Errepublikaren alde mantendu zirenak Eusko Gudarostearen 14. Batailoira sartu ziren Araba Batailoira, hain zuzen. Altxamenduarekin bat egin zutenak, aldiz, uztailaren 18ko estatu kolpeak huts egin ostean Gasteizera ihes egin zuten, eta Arabako Erreketearen 4. Konpainiara batu ziren. Bi unitate horiek aurrez aurre egin zuten borroka, Ermualden ez, baizik eta Urduña inguruko San Pedro mendian. “San Pedro mendian talka egin zuten unitateak ez ziren urrunetik etorritakoak, lubakien bi aldeetan aiaraldearrak zeuden, eurak baitziren ingurua hobekien ezagutzen zutenak”.

Izen propioak

Antzezpenean garaiko pertsonaia errealak hartu zituzten oinarri. Hainbat aktore boluntariok pertsona horien biografiak ikasi eta euren botak jantzi zituen urriaren 1ean. Guztien artean Juan Ibarrola Orueta laudioarraren figura nabarmendu zuten.

Juan Ibarrola Orueta Laudioko Larrazabal auzoan jaio zen, 1900. urtean, familia karlista batean. Bere aitonak Montejurrako batailan parte hartu zuen I. Guda Karlistan. Ibarrola ideologikoko kontserbadorea zen, karrera militar oparoa zuen eta Guda Zibila lehertu zenean Guardia Zibilean zegoen sartuta. Bera, ordea, II. Errepublikari leial mantendu zen. Eusko Gudarostearekin batera aritu zen iparraldeko frontea erori zen arte.Ibarrolak ez zion Guda Zibiliean borrokatzeari utzi eta Armada Errepublikanoan jarraitu zuen. Besteak beste, Teruleko batailako protagonista nagusienetako bat izan zen. Guda amaitu zenean Alacanteko portuan hartu zuten atxilo eta heriotza zigorrera kondenatu zuten frankistek. Heriotza zigorra konmutatu eta preso eman zituen hainbat urte. 1976an hil zen Laudion.

Beste izen propio asko ere ekarri zituzten gogora urriaren 1eko ekintzetan, baita gerran hildakoei omenaldia egin ere. “Gure oraina ulertzeko ezinbestekoa da iragana ezagutzea. Denok jakin beharko genuke nola iritsi garen historiako une honetara”, aldarrikatu du Asier Perez de Eulatek.

erreportajea

Klima aldaketa edo tximeleta efektua

Tximeletak aztertzeko ingurune pribilegiatua dira Urduña eta Gorobel mendilerroa. Bertan aurkitzen dira Iberiar penintsulako espezie batzuen populaziorik handienak. Klima aldaketak, ordea, eragin zuzena du lepidoptero hauen biziraupenean. Zerynthia elkarteko kideak Urduñan izan ziren tximeleten eta aldaketa klimatikoaren arteko harremana erakusten.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Seinale txikienek ere aldaketa handiak iragartzen dituzte. Lur planetaren berotze globala gutxika haziz doan mehatxu geldiezina da. Berotegi efektuko gasen isurketa, erregai fosilen erreketak, industria-prozesuek edota zuhaitz masen galerak eredu meteorologikoen eraldaketa sakona ari da eragiten, abiadura bizian, gainera.

Aldaketa guzti horiek nozitzen lehenak klimarekiko sentiberagoak diren animalia eta landare espezieak dira, horien artean intsektuak nagusiki. Intsektu populazioen galera axolagabea izan daiteke jende askorentzat, hauek edozein ekosisteman berebiziko papera duten arren. Kontuan hartu behar da, ingurunea edozein izanda ere, intsektuek biodibertsitate osoaren %50 baino gehiago osatzen dutela. Adibide bat jartzearren; polinizazioaz arduratzen diren intsekturik gabe ez litzateke frutarik ezta barazkirik egongo, horrek eragin zuzena izango luke nekazaritzan, eta, ondorioz, gizakion elikaduran eta baita ekonomian ere. Kate-erreakzioa da, tximeleta efektua.

Hain zuzen ere, tximeleten eta klima aldaketaren arteko lotura erakusteko hitzaldia eskaini zuten Yeray Monasteriok eta Ruth Escobes Zerynthia elkarteko kideek iragan urriaren 1ean Urduñan, Nerbioi-Ibaizabal mankomunitateak eta Urduñako Udalak Asteklima egitasmoaren barruan antolaturiko jardueren baitan.

Klima aldaketa

Tximeletak oso sentikorrak dira ingurune-naturalean gertatzen diren aldaketetikiko. Tenperatura aldaketa etengabeak eragin zuzena du espezie hauengan. “Azken urteetan neguak laburragoak dira, ez dira hain hotzak, eta udaberriak, nolabait aurreratu egiten dira”, adierazi du Yeray Monasterio Zerynthia elkarteko lehendakariak “horren eraginez apirila edo maiatzean agertu ohi diren tximeleta espezieak otsailean edo martxoan hagan ikus ditzakegu”.

Aldaketa hauek tximeletei ez ezik, gainerako intsektuei zein natur-inguruneari ere nabarmen eragiten diete. “Tximeleten agerpena aurreratu daitekeen bezala, hauen elikagaia diren landareen agerpena ere aurreratu eta atzeratu daiteke. Beldarrak landareen hostoez elikatzen dira, eta tximeleta nagusiak loreen nektarraz. Landare hauen agerpena ez bada tximeleten agerpenarekin sinkronizatzek, hauek janaririk gabe geratzen dira”.

Urtaroen aldaketa hau progresiboa ari da izaten, eta horrela jarraituko duela erakusten dute ikerketek. Ihobe erakundeak Gasteizko Europa Jauregian egindako aldaketa klimatikoaren aurkako neurriak aurkezteko ekitaldian eman zituen datuen arabera, klima mediterranoa klima ozeanikoa ordezkatzen ari da urtez

erreportajea

urte.Euskal Herrian kantauriar eta mediterranear isurialdeen arteko ur-mugak markatzen du klima ozeanikoaren eta kontinentalaren arteko bereizketa. Aiaraldean, beraz, urtaro lehorrik gabeko klima ozeanikoa da nagusi, non prezipitazioak erregularrak diren eta batez besteko tenperatura 11 eta 14 gradu zentigradu bitartekoa den.

Baina hori aldatuz doa, eta hemendik 25 urtera klima mediterraneoa ur-muga gainditu eta Bilbora arte ere iritsi daitekeela erakusten dute datuek. Ondorioz, klima epelagoak eta idorragoak nagusitzen doaz eta, horrek, aldaketa nabaria eragiten du tokiko landaredian.

Apolo tximeleta

Aldaketa motela bezain etengabea da, honezkero nozitzen ari garena. Adierazle asko ditugu inguruan, eta Apolo tximeletaren desagerpena da horietako bat. "Kasu paradigmatikoa da tximeleta honena; espezie gutxirekin ikus dezakegu honekin ikusten duguna, gure muturren aurrean desagertzen ari da", azaldu du Monasteriok. Azken 30 urteetan %40 egin du behera tximeleta honen populazioak.

Goi-mendiko tximeleta da Apolo tximeleta, Parnassius apollo, Gorobel mendilerroan oso ugaria izan da orain arte. Munduko beste ordoki batzuetan, izan Pirinioak edo Alpeak, tximeleta honen populazioak kota garaiagoetara lekualdatu dira, bertako poulazioak nola edo hala egonkor mantenduz. Aiaraldeko mendiak, ordea, oso baxuak dira eta nekez gainditzen dituzte 900 metroak itsas mailarekiko. "Hori dela eta, Apolo tximeletak ez du klima hotzagoen bila inora jotzerik, eta besterik gabe desagertu egiten da", nabarmendu du Zerynthia elkarteko lehendakariak.

Tximeleten paradisu

Apolo tximeleta ez da Urduña inguruan aurkitu daitekeen tximeleta mota bakarra. Badira gehiago, eta batzuk bereziki bitxiak dira. "Lepidoptero zaleen artean Urduña oso ezaguna da tximeleta espezie arraroen bizilekua baita", nabarmendu dute Zerynthia elkarteko kideek. "Duela urte batzuk Euskal Herriko tximeleten gida argitaratu genuen Jaurlaritzaren laguntzarekin. Liburuaren azalean agertzen diten lau tximeletatik hiru Urduñan ikus daitezke soilik", azaldu du Ruth Escobesek. "Tximeletan aditu den Cadizeko pertsona batek ederki daki non dagoen Urduña eta zer aurkitu bertan. Pena da askotan etxe ondoko altxorrak hain ezezagunak izatea herritarrentzat".

Lopinga, Palaemon eta Burumotz katagorria dira hiru tximeleta horiek. Os baldintza zehatzak behar dituzte eta Urduñan aurkitu dituzte. Hain zuzen ere, hiriaren ingurune-naturalean aurkitzen dira Iberiar Penintsulako populaziorik oparoenak.

Zerynthia elkartea

Estatu mailako elkartea da Zerynthia elkartea, eta aurten 15 urte beteko ditu tximeleten ikerketa eta babes lanak egiten. Espezie desberdinak monitorizatu eta hauek kontserbatzeko ekintzak burutzen ditu. Europa osoko erakunde eta elkarteekin elkarlanean aritzen dira tximeleta populazioen aldaketak ahalik eta zehatzen jasotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan Hazi fundazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera egiten du lan. "12 urte daramatzagu tximeleta populazioak kontabilizatzen. Urte asko badira ere, bertan jasotako datuak ez dira nahikoak klima aldaketak eta bestelako faktoreek populazioetan izandako eragina kuantifikatzeko", azaldu du Escobesek.

Baina, egon badaude kezkatzeko datuak. Tenperatura globalaren igoerak ez ezik, klima aldaketarekin nolabait lotutako beste faktore askok ere eragin nabarmena dute tximeletengan: pestiziden erabilera, abeltzantzak abandonatutako larreen galera, basoen desagerpena, monolaborantza...

Monesteriok eta Escobesek balioan jarri dute Urduñako espe-rientzia: "Natur-ingurunea kontserbatzeko ezagutza ezinbestekoa da". Elkarteak aldaketa klimatikoak eragindako kalteak arintzeko lanetan jarraituko du, baina nabarmendu dute administrazioen laguntza ezinbestekoa dela.

Urudñako tximeleta espezie desberdinak ezagutzeko txangoa egin zuten larunbatean. **Yerya Monasterio, Zerynthia elkartea**

Lopinga
Lopinga achine

Oso tximeleta ohikoa da Europako basoetan, Iberiar penintsulan, ordea, Asturiaseko Europako mendietan eta Urduña inguruan agertzen da soilik. Urduñako populazioak Gorobel mendilerroko pagadietako soilguneak ditu bizileku. Bere hegalek kolore arrea eta 24 eta 28 milimetro arteko zabalera dute.

Palaemon
Carterocephalus palaemon

Iberiar penintsulako populazio handienetariko bat, Kataluniako Arango haranarekin eta Asturiaseko Europako Mendiekin batera, Barrerilla mendatearen inguruan aurkitzen da. Bere hegalek 29 eta 31 milimetro arteko zabalera daukate. Hegalen koloreak marroi ilunak eta laranjak dira nagusiki.

Burumotz kategorria
Satyrium pruni

Oso tximeleta urria da, eta Iberiar Penintsulako leku gutxitan aurkitu daiteke. Hain zuzen ere, Urduñan dago populazio handiena. Elorriaz elikatzen da nagusiki, eta landarea ohikoa bada ere, tximeleta honek behar dituen tenperatura eta hezteasun baldintzak oso zehatzak dira.

elkarrizketa

“Aiaraldeko biodibertsitatea oso aberatsa da, oraindik gauza asko ditut hemen ezagutzeko”

XABIER RAMOS RODRIGUEZ (Okondo, 1997) NATURA ARGAZKILARIA DA, ETA AIARALDEKO BIODIBERTSITATEA ARDATZ DUEN ERAKUSKETA AURKEZTU DU, HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEKO.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Nondik dator klima aldaketaren inguruko argazki erakusketa bat egiteko ideia?

Aiarako Kuadrillak enkargatu zidan gaiari lotutako argazki erakusketa bat prestatzea, irailaren 23tik urriaren 2ra ospatu behar zen Asteklima ekimenaren barruan. Nik gogo onez esan nuen baietz.

Zer da erakusketan azaleratu nahi izan duzuna?

Erakusketaren helburu nagusia naturarekiko errespetua eta ezagutza sustatzea da. Eremu pribilegiatu batean bizi gara. Izan ere, Aiaraldeko biodibertsitatea oso oso aberatsa da. Paisaia natural ikusgarriak ez ezik, espezie asko gordetzen dituzte gure inguruek.

Bildu ditudan argazkiek aberastasun guzti hori erakusten dute. Baliabide natural desberdinen argazkiak, ur jauzienak... Baita dozenaka hegazti, narrasti, intsektu edota ugaztunen argazkiak ere jaso ditut. Guztira 25 piezek osatzen dute bilduma, 2018 eta 2022 urteen artean ateratako argazkiak dira hauek.

Ikusleengan eragin bat sortzea dute helburu argazkiek, beraz.

Jendea kontzientziatzeko modurik onena ezagutza da. Inguratzen gaituen biodibertsitatearekiko ezjakintasuna mehatxu bat da gure ingurune naturalaren babeserako. Babestu nahi dugun hori zer den ezagutzea ezinbestekoa da. Gure gizartea, oro har, aberastasun natural eta faunistiko horretatik urrun bizi da, nahiko ikuskera urbanoa daukagu eta hori gainditu beharra dago.

Aiaraldeko ingurune naturala uste baino ahulagoa da. Guztion ardura da hau ezagutzea, zaintzea eta babestea.

Hainbeste urtez natur-ingurunean argazkiak egiten aritu ostean, igarri duzu aldaketarik honetan?

Ez daramat aldaketa nabarmenik ikusteko bezain besteko denbora, baina egia da biodibertsitatearen gainbehera bat gertatu dela. Geroz eta zailagoa da zenbait animalia espezie ikustea.

Hegabera, hegazti migratzaile bat, da horren adibide. Lehen ohikoa zen saldo handiak ikustea, orain nekez ikus daitezke ale gutxi batzuk.

Intsektu kopuruak behera egin du nabarmen, eta anfibio asko ere desagertu egin dira. Erantzukizuna gizakiona da zalantzarik gabe. Anfibioen kasuan, esaterako, aire kalitate txarrak eta euri azidoek egundoko eragina dute.

Nolako harrera izan du erakusketak?

Oso ona! Inaugurazioa oso polita izan zen. Argazkiak egiteko erabiltzen dudan ekipo desberdinak ekarri nituen, baita naturan kamuflatzeko erabiltzen dudan materiala ere bai. Haurrek oso ondo pasatu zuten argazkiak nola egiten diren ezagutzen.

Ikusgai egon den astean ere, asko izan dira argazkiak asko gustatu zaizkiela esanez nigana hurbildu direnak.

Behin Okondoko erakusketa amaituta, baduzu beste asmorik proiektuarekin?

Gustatuko litzaidake erakusketa ibiltari bilakatzea eta, gutxienez, Aiaraldeko gainerako udalerrietan ere ikusgai egotea, eta herritarrek erakusketak transmititu nahi dituen baloreak barneratzea. Honezkero hasi naiz kontaktuak egiten, Amurrioko Muskerrak taldeko kideekin, esaterako.

Nola murgildu zinen natura-argazkilaritzan?

Argazkilari zaletu oro bezala era guztietako argazkiak egiten hasi nintzen: erretratoak, moda argazkiak...

Egun batean, ordea, errekan lagun batzuekin nintzela ur-zozo bat ikusi nuen ur-jauzi baten atzetik ateratzen. Ni liluratuta geratu nintzen eta argazki ba-

elkarrizketa

tzuk egin nizkion. Handik gutxira lagun batek teleobjektibo bat utzi zidan eta natura-argazkilaritzan murgiltzen joan nintzen gutxinaka. Esan daiteke ur-zozo hark piztu zidala afizioa, eta gaur egun ere nire txori gogokoenetariko bat izaten jarraitzen du.

Denborarekin joan naiz teknika konplexuagoak ezagutzen. Asko gogoko dut natura-argazkilaritza, ez bakarrik argazkiak egitea gustuko dudalako, baizik eta inguratzen gaituen hori ondo ezagutu beharra dagoelako ere: espezieak ezagutu, aztertu, bere ohiturak barneratu...

Lotura indartsuak eta oso bereziak sortzen dira bai animaliekin baita paisaiarekin ere. Animaliek bezala paisaia bakoitzak ere bere uneak ditu, bere urtaroak... Finean, argazki bakoitzak ikerketa lan propio eta zabala du atzetik.

Zaletasun honek urrutiko paisaietara ere eramango zintuen.

Egon izan naiz penintsulatik animalia bitxiei argazkiak egiten, baina Aiaraldea bezalakorik ez dago. Noski gustatuko litzaidakeela Alaskara joatea animalia arraro eta ezezagun bat fotografiatzera, baina gehiago asebetetzen nau ingurukoak, okil berde bati argazki bat ateratzeak, adibidez.

Hain da aberatsa Aiaraldeko biodibertsitatea... oraindik gauza asko eta asko ditut hemen ezagutzeko.





Xabier Ramosen instagram kontuan jarraitu daiteke argazkilari gaztearen lana. **@xabiramos**

AIARALDEA - FAKTORIA
KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

agenda

2022/10/05
2022/10/19



Lantenon elkartuko dira jakintza partektzeko
Wikiasteburua topaketan

Urriaren 4tik 9ra luzatuko dira 'Liburutegiak eta ezagutza askea' izeneko jardunaldiak Aiaraldean. Zehazki, Aiaran eta Artziniegan gauzatuko dira tailerrak, eta gaiari ertz anitzetatik helduko diote. Formatu ugari tartekatuko dituzte, hala nola hitzaldia, topaketa edota tailerra. Saio gehienak Mentxu Ramilo Araujok gidatuko ditu, Wikiemakumeok proiektuko bultzatzaile eta wikilariak.

Asteartean hasi ziren jardunaldiak Zer egin dezaket ezagutza askearen alde? solasaldiarekin eta urriaren 8an jarraituko dute Lantenoko Garabillla landetxean 'Wikiasteburua: askeago izateko ezagutza eta jitea' izenburupean. Hala, asteburu osorako egitaraua prestatu dute: larunbatean 10:00etatik 14:00etara 'Wikimedia Unibertsora eta wikipedian genero arrakala murrizteko ekimenetara hurbilpena' jorratuko dute, eta arratsaldean 'Wikitakes Aiaraldea' gauzatuko dute.

Igandean, berriz, wikipedian editatzeko gakoak partekatuko dituzte goiz osoan zehar. Izen-ematea zabalik dago, eta mentxuramilo@wikimedia.es helbidera mezua bidali beharko dute interesdunek.

Azaroaren 22an azken jarduera

Azaroaren 22an bukatuko dira jardunaldiak, Artzinigeako liburutegian wikipedian editatzeko tailer batekin. 16:00etatik 18.00etara izango da ekintza hori eta apuntatzeko liburutegira bertaratuko beharko dira herritarrak. "Jarduerak gaztelerazizango dira, tailerrean gaztelaniaz eta euskaraz editatzeko aukerarekin", azpimarratu dute.

MUSIKA

10.15 Larunbata
19:30 LAUDIO
SUBURBAN REBELS, MALAS CARTAS, KOSKA, THE SHOTS, AGAINST YOU
Minibiziaren kontrako streetpunk jaialdia
Sorgin taberna

KIROL JARDUERAK

10.07 Ostirala
19:00 AMURRIO
MASA KRITIKOA
Bizikleta martxa
GUK eskultura

10.07 Ostirala
19:30 URDUÑA
ESKALADA IKASTAROA
Aurea Salvadorren eskutik
Alondegia

07:00 OROZKO
OROZKO HARANA XXXIII. MENDI IBILALDIA
Zubiaur plaza

10.10 Astelehena
11:30 AMURRIO
IBILBIDE OSASUNTSUAK
Ibilaldiak taldean
Anbulatorio zaharra

10.16 Igandea
09:00 OKONDO
XIII. OKONDO HARANA IBILALDI NEURTUA
Irabien kalea

10.16 Igandea
10:00 AMURRIO
BURU OSASUNAREN ALDEKO III. IBILALDIA
Juan Urrutia plaza

TAILERRAK

10.06 Osteguna
17:00 LAUDIO
HERRI TXIKIEN AKADEMIA
Herri txikiak indartzeko elkarlan, aholkularitza eta saretze proiektua
Faktoria

10.07 Ostirala
18:00 LAUDIO
EUSKARALDIA AKTIBAZIO HITZALDIA
Garikoitz Goikoetxearen eskutik
Faktoria

10.08 Larunbata
10:00 AIARA
WIKIASTEBURUA
Wikimedia unibertsora eta Wikipedian genero arrakala

10.17 Astelehena
14:30 AIARA
EMAN IKUSGARRITASUNA ZURE NOGIZOARI
Tailer praktikoa
Arespalditza

10.19 Asteazkena
17:00 URDUÑA
FORMA GEOMETRIKOEI BURUZKO UMEENTZAKO TAILERRA
Alondegia

FAMILIA JARDUERAK

10.07 Ostirala
17:00 OKONDO
ZIENTZIA TAILER DIBERTIGARRIAK
Adin ezberdinetako umeentzako tailerrak
Kultur Etxea

10.07 Ostirala
17:30 OROZKO
BARRE EGITEKO IPUINAK
Liburutegia

ANTZERKIA

10.08 Larunbata
20:00 AMURRIO
'SIEMPRE EN OTOÑO'
Antzerkia Amateurraren Jaialdia
Amurrio Antzokia

10.15 Larunbata
20:00 AMURRIO
'GREENPISS'
Yllana producciones-en antzezlana
Amurrio Antzokia

ZINEMA

10.09 Igandea
19:30 AMURRIO
ZINEMA: 'LA VIDA PADRE'
Komedia generoko filma
Amurrio Antzokia

10.16 Igandea
19:30 AMURRIO
ZINEMA: '42 segundos'
Amurrio Antzokia

BESTELAKO JARDUERAK

10.05 Asteazkena
18:00 AMURRIO
AMURRIOKO HORMA-IRUDI PARTE HARTZAILEA
Informazio bilera Veronica Werckmeister horma-irudiegilearekin
Udalbatza aretoa

murrizteko ekimena, Mentxu Ramilorekin
Garabilla landetxea

10.09 Igandea
10:00 AIARA
WIKIASTEBURUA
Wikipedian editatzeko gakoak
Garabilla landetxea

10.16 Igandea
11:30 ARRANKUDIAGA
HILEKOAREN INGURUKO TAILERRA
4 eta 18 urte bitarteko neskentzat
Txondor Gaztetxea

10.08 Larunbata
09:50 URUDÑA
ETXERA BIDEA
GERTU, DONOSTIAKO MOBILIZAZIORA JOATEKO AUTOBUSA
Urduña, Amurrio eta Laudiotik igaroko da
Suhiltzaileak

10.13 Osteguna
09:00 AIARA
MERINDADEETARA TXANGOA
Lantenoko Eskolak

INFO +
aiaraldea.eus

Buru osasuna
aldarrikatuko dute ibilian

Buru osasunaren aldeko III. martxa antolatuko du ASASAMek datorren urriaren 16an. Parte hartzaileak goizeko 10:00etan abiatuko dira Laudioko Herriko Plazatik eta Amurrioko Juan Urrutia plazatik, Luiaondoko txoritegia helburu. Bi martxak bertan batuko dira eta hamaiketakoa parte hartzaile guztiek batera egingo dute. Bertan, opari bat ere banatuko dute. Inskripzioak 3 euro balioko du.

Orozko eta Okondoko
natur-ingurunea mendi-martxen bidez ezagutzeko aukera

Bueltan da mendi martxen sasoia eskualdera. Orozkon urriaren 9an egingo dute Orozko Harana martxaren XXXIII. edizioa. Bi ibilbide egongo dira; 32 kilometroko luzea eta 26 kilometroko martxa laburra. Bi martxak 7:30ean abiatuko dira Zubiaur Plazatik. Itxinape Mendi Taldetik jakinarazi dutenez ,izen ematea doakoa izango da eta egunean bertan egin ahalko da. Ibilbide luzeak Austiarmineraino eramango ditu mendizaleak. Laburrak, ordea, erdibidea hartuko du Aranekoharrira iritsi aurretik, eta Austiarminen elkartuko da berriro martxa luzearekin.

Okondoko Ganekogorta Mendi Klubak ere iragarri du bere urteroko zita: urriaren 16an egingo dute Okondo Ibarra VIII. Ibilaldi Neurtua. Ibilaldia 9:00etan aterako da Ibarra kaletik eta 15 kilometroko luzera izango du. Martxak helburu solidarioa izango du; izan ere, bildutako dirua AEFAT elkarteari emango diote.

Zinema eskaintza bueltan
Amurrio Antzokiko pantailara

Ikasturte berriarekin batera zinema eskaintza bueltatu da Amurrio Antzokira. Aurreko edizioetan bezala, astero-astero flim berri bat proiektatuko dute. Igande eta astelehenetan izango dira paseak, 19:30ean eta 20:00etan hurrenez hurren. Igandean sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da; astelehenetan, aldiz 3,75 eurokoa.

Eullet Train pelikularekin hasi zuten programazioa urriaren hasieran. *La vida padre, 43 segundos, Cinco lobitos* eta *Olga* dira urrirako programatutako hurrengo flimak.

Hardcore doinuak
minbiziaren aurka

Hardcore Hits Cancer ekimenak elkartasun kontzertua egingo du urriaren 15ean Sorgin Tabernan. Suburban Rebels, Malas Cartas, Koska, The Shots eta Against You street punk taldeek joko dute eta lortzen den dirua, ohiko legez, Afanoc Gobernuz Kanpoko Erakunde kataluniarrari bideratuko dute.

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, 688 848 152 zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!

TELEGRAM
Batu Telegramera t.me/aiaraldeaeus esteka bidez!

INFO+ **www.aiaraldea.eus**

erreportajea

Beherakada euskararen kale erabileran, salbuespenekin

Belaunaldien arteko elkarrizketetan (haur eta helduen artean batez ere) erregistratu da euskararen erabilera handiena. **Aiaraldea.eus**

Beherakada nabarmena egon da azken 10 urteetan euskararen kaleko erabilerari dagokionez. Hori diote Soziolinguistika Klusterrak Laudio eta Orozkon eginiko neurketen emaitzek. Urduñan, aldiz, igoera leuna egon dela diote azterketek.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Jaitsiera nabarmena egon da Aiaraldean euskararen kaleko erabilerari dagokionez. Hori ondorioztatu daiteke Soziolinguistika Klusterrak eginiko neurketen emaitzak ikusita.

Erakunde horrek uda hasieran plazaratu zituen Euskal Herriko datu orokorrak, eta baita eskualdetakoak ere. Baina udal batzuek neurketa zehatzagoak enkargatu zizkioten Klusterrari, eta horien emaitzak plazaratzen ari dira orain. Azaroan amaituko dute herriz herrikako emaitza horien aurkezpen zikloa, eta orduan plazaratuko dute informazio guztia Soziolinguistika.eus webgunean.

Aiaraldeko hiru udalerritan egin dituzte neurketa zehatzago horiek: Laudion, Orozkon eta Urduñan. Lehen bi herrietan jaitsiera nabarmena egon da euskararen kaleko erabileran 2011tik 2021era . Urduñan, aldiz, igoera txikia egon da.

Orozkon, 34 puntu behera

Eskualdeko jaitsiera nabarmenana Orozkon izan da. Udalerri horretan iaz eginiko kale neurketaren arabera, euskararen kale erabilera %23,2koa da, 2011koa %57,2koa zen bitartean. Hau da, ia 34 puntuko jaitsiera egon da hamar urtetan.

Ez dago argi zerk eragin duen horren jaitsiera nabarmena. Euskararen ezagutzari buruzko azken datuak 2016koak dira. Horien arabera, orozkoarren %61,6k daki euskaraz. Hortik kalkulatu daiteke erabilera isotropikoa deritzon parametroa, Txilardegi soziolinguistak bere garaian eginiko formula matematikoan oinarrituta. Parametro horren bidez, euskararen ezagutzaren arabera zenbateko erabilera espero daitekeen kalkulatu daiteke. 2016an ateratako datuaren arabera, euskararen erabilerak %30,4koa izan beharko luke Orozkon; hau da, azken kale neurketan atera dena baino 7,2 puntu handiagoa. Adinari begira badaude ñabardurak kale neurketaren datuetan. Beherakada orokortua izan da adin tarte guztietan, baina 65 urtetik gorakoetan izan da agerikoena, 57 puntuko jaitsiera egon baita hamar urtetan.

Orozkon 34 puntuko jaitsiera egon da euskararen kale erabileran azken hamar urteetan

1.433 solaskideren arteko 509 elkarrizketa erregistratu zituzten Orozkoko kale neurketan. Asteko 7 egunetan egin zuten azterketa, 16 egunez. Ikertzaileek ez zuten ibilbide zehatzik egin. Herriko erdigunean aritu ziren, "jendea ibili ohi den lekuan".

Laudion, lau puntu behera

Laudion lau puntuko jaitsiera jazo da azken hamarkadan.

erreportajea

2011n eginiko neurketan erregistratu ziren kale-elkarrizketen %9 izan zen euskaraz. 2021ean, aldiz, %4,6 jaitsi zen ehunekoa.

Iragan irailaren 23an plazaratu zituzten datuak, Euskararen Jaiaren egitarauaren barruan Udalak antolatutako aurkezpenean. Belen Urangak hartu zuen hitza bertan. Soziolinguistika Klusterreko kideak hainbat ñabardura eta azalpen eman zituen bertan, datuei testuingurua emateko.

Laudion bi bikote aritu ziren neurketa egiten 2021eko udazkenean. Bi ibilbide egin zituzten herrigunean barrena, eta mugikorren bidez hartu zituzten entzundako elkarrizketen inguruko datuak, "modu diskretuan", jendeak ezin baitzuen jakin zertan ari ziren. "Ibilbide horiek Udaleko euskara sailarekin adostutakoak dira", azaldu zuen Urangak aurkezpenean. "Bikote bakoitzak 20 ordu igaro zituen guztira ibilbide bakoitza egiten, asteko egun ezberdinetan. Modu horretan, 8.707 lagunen 3.028 elkarrizketa erregistratu zituzten". Lagin hori izanda, lortutako datuak "estatitiskoki sendoak" direla nabarmendu zuen Urangak, "akats tartea oso txikia" delako; baina honakoa ere aipatu zuen: "Ezin dugu ahaztu une zehatz batzuetan entzundako elkarrizketak direla. Momentuko datuari baino, bilakaerari erreparatzea da garrantzitsuena, momentuko argazkia oso estatikoa izaten delako".

Beste faktore garrantzitsu bat ere nabarmendu zuen soziolinguistak, azken urteetan nabarmen aldatu dela kaleko bizitza. "Adineko gutxiago dago, eta gazte gehiago... hori guztia ere kontuan hartu behar dugu".

Era berean, nabarmedu zuen azterketak "kalean entzundakoa" soilik hartzen duela kontuan, "ez beste esparru batzuetan entzuten dena". Ildo horretan, Urangak azaldu zuen alor askotan eragin daitekeela. "Hainbat mailetan eragitea dagokigu. Udalerri mailan zertan eragin daitekeen identifikatu behar dugu, eta horretan eragin".

Sexuaren araberako banaketari begira, datu bitxi bat aipatu zuten aurkezpenean: Laudion ez dagoela ia ezberdintasunik gizonezkoen eta emakumezkoen artean. "Gainontzeko udalerri gehienetan, aldiz, euskararen kale erabilera handiagoa da emakumeen artean".

Laudion lau puntuko jaitsiera egon da kale erabileran 2011tik 2021era

Gizon eta emakumeen hizkuntza ohituretan ea ia ez da ezberdintasunik sumatu Laudioko neurketan. Beste udalerrietan bai ordea

Adinari erreparatuta ere ondorio interesgarriak atera daitezke. Belen Urangak 'Heldu gazteen' tartean (25-44 urte bitartekoak) jarri zuen begirada. "Orain arte, 25 urtetik 64 urte artekoak multzo bakarrean neurtzen genituen, baina konturatu ginen populazioaren tarte hori oso handia dela".

Bi tarteak banatuta, datu esanguratsuak lortu dituzte, 'heldu gazteen' euskararen erabilera handiagoa delako. "Guraso gazteak daude tarte horretan. Bada populazioren zati bat harremanetan dagoela haurrekin, eta azterketetan islatu da horiek direla euskarari astindu bat emateko borondatea erakusten ari direnak, nolabaiteko arau sozial bat izango balitz bezala".

Belaunaldiartekotasunean egon daiteke gakoetako bat, Urangak iradokitakoaren arabera. "Hizkuntzaren erabilera Laudion %10,6ra hazten da haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean, kasu horietan entzuten da euskara gehien". Hala ere, Urangak ez zuen datuen ezkortasuna ezkutatu. "Kezkatzeko arrazoi handi xamarrak daude", aitortu zuen aurkezpenean.

Urduña, salbuespena

Urduñan, aldiz, bestelako joera bat iradokitzen dute datuek, xumea, baina baikorragoa. Urduñako kaleetan topatutako 20 lagunetik 1 (%5,5) euskaraz aritzen da, %91,8 gazteleraz eta %2,7 beste hizkuntzetan. 2011an, aldiz, %4koa izan zen euskararen kale erabilera. Hau da, puntu eta erdi igo da azken 10 urteetan.

Urduñan igoera leuna jazo da azken hamarkadan, puntu eta erdikoa

Urduñan ez zen euskarazko elkarrizketarik erregistratu 2002an eginiko neurketan

Baina datua askoz esanguratsuagoa da duela hogei urteko datuekin alderatuz gero. Izan ere,2002an eginiko kale neurketan ez zen euskarazko elkarrizketarik behatu hirian. Hau da, euskararen erabilera %0,0koa izan zen, Urduñako Udalak nabarmendu duenez.

Euskaldunen ehunekoa %29,3 da Urduñan, 2016ko datuen arabera. Gauzak hala, erabilera isotropikoaren formula matematikoa aplikatuz gero, euskararen erabilera %5,8 izan beharko litzatekeela kalkulatzen da, hau da, neurtutako erabileraren (%5,3) oso antzekoa.

Horrez gain, helduen artean emandako bilakaera positiboa ere nabarmendu du du Udalak, 3 puntu hazi delako euskararen erabilera adin tarte horretan azken 10 urteetan. 2.542 elkarrizketa erregistratu zituzten guztira Urduñako kale neurketan, eta 7.588 solaskide behatu zituzten.

Azaroaren 15ean egingo dute Urduñako azterketaren datuen aurkezpen xehea, Aduana bainuetxeko areto nagusian, 18:00etan. Belen Urangak hartuko du hitza bertan, Euskaltzaleen Topaguneko Kike Amonarrizekin batera.

Laudion irailaren 23an egin zuten bertako kale neurketaren emaitzen aurkezpena. Urduñan azaroaren 15ean egingo dute. **Aiaraldea.eus**

erreportajea

Laudion 4 puntuko jaitsiera eman da azken hamarkadan euskararen kale erabileran, eta Orozkon 34koa, Soziolinguistika Klusterrak iaz eginiko neurketaren arabera. Urduñak, aldiz, aurreikusi zitekeen igoera izan du.

Behera Laudio eta Orozkon, gora Urduñan

EUSKAL HERRIKO BILAKAERA

EUSKAL HERRIKO BILAKAERA
2011: %13,2
2016: %12,6
2021: %12,6

HERRIALDEKA
Gipuzkoa: %31
Bizkaia: %9
Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria eta Araba: %5-6

KANTAURI ARABARRA
(Aiarako Kuadrilla osatzen duten udalerriak)
2021: %5

OROZKO

LAUDIO

URDUÑA

ERABILPEN OROKORRA







EUSKARA: %23,2
GAZTELERA: %75,5
BESTE HIZKUNTZAK: %1,3

EUSKARA: %4,6
GAZTELERA: %93,5
BESTE HIZKUNTZAK: %1,9

EUSKARA: %5,5
GAZTELERA: %91,9
BESTE HIZKUNTZAK: %2,6

erreportajea

OROZKO

LAUDIO

URDUÑA

BILAKAERA



SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA





ADINAREN ARABERAKO BANAKETA

- **HAURRAK** (2-14 urte) %39
- **GAZTEAK** (15-24 urte) %2,5
- **HELDU GAZTEAK** (25-39 urte) %18
- **HELDU NAGUSIAK** (40-64 urte) %19,2
- **ADINEKOAK** (65 urtetik gora) %21,2



- **HAURRAK** (2-14 urte) %7,1
- **GAZTEAK** (15-24 urte) %3,3
- **HELDU GAZTEAK** (25-39 urte) %8,2
- **HELDU NAGUSIAK** (40-64 urte) %3,3
- **ADINEKOAK** (65 urtetik gora) %1



- **HAURRAK** (2-14 urte) %7,1
- **GAZTEAK** (15-24 urte) %3,3
- **HELDU GAZTEAK** (25-39 urte) %8,2
- **HELDU NAGUSIAK** (40-64 urte) %3,3
- **ADINEKOAK** (65 urtetik gora) %1

kultura

“Modaren bidez Erdi Aroko gizartea nolakoa zen irudikatu nahi izan dugu”

NAROA REY GOTXI (Artziniega, 1994) MODA DISEINU IKASKETAK EGIN ZITUEN LOGORÑON ETA ORAIN CREANAVARRA DISEINUKO GOI-MAILAKO ZENTROKO IRAKASLEA DA. BERE IKASLEEKIN BATERA STRATA BILDUMA AURKEZTU ZUEN ARTZINIEGA MUSEOKO ANFITEATROAN EGINDAKO MODA DESFILEAN.

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Maria Martin, Juliana Cecibel Bravo, Leyre Martinez, Michelle Estebanez, Judith Millan, Irati Urriza, Leire Madariaga, Helene de Miguel, Noelia Echevarria eta Kristina Isasti diseinatzaile gazteen sorkuntza lanek jantzi zuten Artziniegako *Strata* desfilea, Naroa Rey Creanavarra zentroko irakaslearen gidaritzapean.

***Strata* desfileak jendetza elkartu zuen Artziniega Museoko anfiteatroan iragan urriaren 1ean. Zer da ikusleek bertan ikusi zutena?**

Creanavarra Diseinuko Goi-mailako Zentroko ikasleek burututako lanaren emaitza da Artziniega Museoko desfilean aurkeztutakoa. Hain zuzen ere, bigarren mailako ikasleek garatu dute proiektua, modaren historia irakasgaiaren barruan.

Nik moda diseinua ikasi nuen Logroñon, eta pandemiaren ostean Creanavarran hasi nintzen irakasle. Irakasgai asko irakasten ditut bertan, horien artean modaren historia ere.

Nire eskolak praktikoak izatea dut gogoko. Ikasleek gai mardul bat buruz ikasi eta azterketa batean ebaluatzea baino, nahiago dut modu bisualago batean barneratzea gaitegia eta bertan lantzen dugun iruditegia.

Aurreko ikasturtean desfile bat egitea proposatu nien, eta Artziniegako hiribilduaren 750. Urteurrena baliatuta, Erdi Aroa aukeratu genuen gai bezala, Barrokoaren edo Errenazimenduaren ordez.

Museoarekin eta Artziniegako Udalarekin jarri nintzen harremanetan, eta erraztasun guztiak jarri dizkigute proiektua aurrera ateratzeko. Zentzu horretan oso eskertuta gaude.

Zer da bilduman transmititu nahi izan duzuena?

Erdi Aroko gizartea nolakoa zen irudikatu nahi izan dugu. Oso gizarte estratifikatua zen hura, eta hori islatzen saiatu gara: nekazariak, txiroak, zaldunak, kleroa, goi-noblezia...

Nola irudikatu dituzue desberdintasun sozial horiek jantzietan?

Kolore eta oihal eta ehun desberdinak baliatu ditugu horretarako. Gizarte-klase baxuenak ehun natural eta kolore apalagoekin irudikatu ditugu; noblezia, ordea, kolore biziagoekin jantzi dugu. Desfilean piramide soziala behetik gora aurkeztu genuen, eta azken piezak gizarteko estamentu bati erreferentzia egin ordez fede katolikoari, izurrite beltzari eta heriotzari egiten zion erreferentzia: fedea irudikatzen zuten arropa beltzak eta hezur pila bat irudikatzen zuen soineko luze eta zuria nahastuz.

Janzkerari kutsu modernoago bat eman diogu. Ez genuen Erdi Aroko arropen erreplika zurrun bat egin nahi, hori ikusteko badaude beste espazio batzuk. Gainera, ikasleen sormena landu nahi genuen, bakoitzak bere estilo propioaren bidez diseina zezan.

> ***“Janzkerari kutsu modernoago bat eman diogu. Ez genuen Erdi Aroko arropen erreplika zurrun bat egin nahi. Gainera, ikasleen sormena landu nahi genuen, bakoitzak bere estilo propioaren bidez diseina zezan”***

Zer urrats jarraitu dituzue bilduma osatzeko?

Gaia ikasleei aurkeztu nien, eta ikerketa lanarekin hasi ginen. Bakoitzak egokitu zitzaion estamentu sozialaren inguruko informazioa bildu zuen: nola bizi ziren, non bizi ziren, nola janzten ziren... Erreferente desberdinak ere ikertu ditugu: Batzuentzat beste batzuentzat baino zailagoa izan da dokumentatzea, informazioa urriagoa zelako.

Ikerketa lanaren ostean bozetoak egitera pasa dira ikasleak. Horren ostean, eta patroiak egin eta jostera pasa aurretik,

bozeto eta ideia guztiak bateratu genituen. Diseinatzaile bakoitzak bere estilo propioa du eta bildumari koherentzia emateko zenbait ideia bateratu genituen: kolore paleta, oihal motak, jantzien luzera...

Desfilea prestatzeak ere lan karga handia suposatuko zuen, ezta?

Bai, orotara urtebete inguru egon gara desfilea eta erakusketa prestatzen. Modeloak bilatzeak lan handia suposatu du. Jantziek neurri bakarra zuten, ondorioz, modelo egokiak bilatu behar genituen ahalik eta aldaketa gutxien egiteko diseinuan. Modeloen profila tentuz bilatu dugu, transmititu nahi genuen hura hobekien islatzeko. Nekazariak, klase baxuak... azal beltzaranagoekin irudikatu ditugu; izan ere, ordu asko ematen zituzten eguzkipean lanean. Noblezia eta klase altuak, aldiz, azal zurbilagoarekin irudikatu ditugu.

Dibertigarria izan da, herriko jendea, gertuko jendea lotu dugu desfilatzeko. Hasieran iragarki bat zabaldu genuen sare sozialetatik modeloak bilatzeko. Nesken kasuan oso erraza izan da, mutilak lotzea gehiago kostatu zaigu; baina beti dago lagunen bat, auzokideren bat edota ezagunen bat laguntzeko prest. Azkenean Artziniegako, Zaurtzeko, Gasteizko edota Amurrioko modeloak izan ditugu.

> **“Oso polita izan zen bildumak herritarren interesa piztu zuela ikustea. Jendea oso pozik atera zen, eta askok zoriondu gintuzten egindako lanagatik”**

Desfileak izugarrizko arrakasta izan zuen.

Guk ere ez genuen inondik inora horrelako harrerarik espero. Museoko anfiteatroa osorik bete genuen. Oso polita izan zen bildumak herritarren interesa piztu zuela ikustea. Jendea oso pozik atera zen, eta askok zoriondu gintuzten egindako lanagatik.

Askotan badirudi moda oso zirkulu zehatzetara dagoela mugatua, eta egia da desfileak (diseinatzaile handienak bereziki) ez daudela mundu guztiarentzat eskuragarri. Larunbatekoak balio izan zuen moda herritarrengana hurbiltzeko, eta ulertzeko desfile baten atzean dagoen lan guztia.

> **“Ikasleek egindako lana izugarria izan da. Asko eskatu zaie eta izugarrizko maila altua erakutsi dute; beti irribarre batekin”**

Jantzi guztiekin erakusketa atondu duzue orain.

Bai, jantzi guztiak ikusgai egongo dira Artziniega Museoko erakusketa aretoan azaroaren 1era arte, eta sarrera doakoa izango da. Desfilean ez bezala, erakusketa aretoan ez ditugu jantziak hierarkikoki antolatu, guztiak nahastuta baizik, azken finean, estamentu guztiak nahastuta zeudela erakusteko asmoz.

Erakusketa aretoa Creanavarra zentroko barne-diseinuko ikasleek atondu dute. Arlo grafikoa (kartelak, esku-orriak...) zentroko ikasleek prestatu dute. Hauek ere egundoko lana egin dute.

Pozik zaude emaitzarekin?

Bai, bereziki ikasleek egindako lanarekin. Asko eskatu zaie eta izugarrizko maila altua erakutsi dute. Beti irribarre batekin, eta beti euren buruak gainditzeko eta hobetzeko asmoarekin.

kultura

Igor Arzuagaren horma-irudiak jantzi du Laudio

Igandean jarri zuten horma-irudia Zumalakarregi etorbidean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Igor Arzuagaren 'Hau ez da pipa bat' ilustrazioak janzten du ostiralaz geroztik Laudioko Zumalakarregi etorbidea. 15 metro koadroko horma irudiak artista aretarraren ilustrazioa jaso du, ekainean Kulturlab egitasmoaren barruan abiatutako esku-hartze artistikoari segida emanez. Arzuagak, René Magritte artista belgikarrari egin dio keinu horma irudi bilakatu den ilustrazioan. Argazki-oinarri baten gainean tratamendu digitalaren bidez egindako ilustrazioa da artista aretarrak aurkeztutakoa.

Kulturlab 02 ekimenak bere hurrengo egitasmoa ere aurkeztu du; Fair Saturday kultur mugimenduarekin bat egin, eta nazioarteko Inside Out proiektuaren barruan jasotako 300 argazkiak jarriko dituzte Laudioko "toki enblematiko" batean. Azaroaren 26an jarriko dituzte argazki guzti horiek, oraindik iragarri ez duten lekuan. Baina laudioarrei adi egoteko eta erretratuen instalazioan laguntzeko deia zabaldu diete: "Kulturaren papera aldarrikatzeko, eta Lamuza parkea erreferentziazko kulturaren parke gisa berreskuratzeko ahaleginak bikoizteko".

Amurrio Antzokiko zinema egitarauko ordutegiari buruzko galdetegia zabaldu du Udalak

Amurrio Antzokiko erabiltzaileei begirako galdetegia da. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Amurrioko Udalak galdetegia osatu eta zabaldu du herritarrek adierazi dezaten egokitzat jotzen ote duten zinema saioen ordutegia edo aldatzea nahiago duten. Berez, ekimena abiatu du erakundeak zenbait erabiltzailek hori iradoki zutelako.

Lokalean bertan edo Internet bidez bete daiteke galdetegia urriaren 17ra arte. Sei galderek osatzen dute inkesta eta denbora oso gutxi behar da amaitzeko. Finean, tokiko erakundeak argitu nahi duena da interesundunek ordubete edo ordu erdi aurreratu nahi dituzten zinema proiekzioen hasiera ordutegiak. Amurrioarrek ez ezik, edonork ere erantzun ditzake itaunak.

Kale-arte tailerren eskaintza Aiaraldeko nerabeentzako

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Musika elketronikoaren edizioa, soinu eta argi teknika edota 'beat box' tailerrak eskainiko ditu Faktoriak

Zazpi kale-arte tailer eskainiko ditu Faktoriak urriaren 15etik azaroaren 26ra bitarte. Tailerrak larunbatero egingo dituzte 16:00etatik 20:00etara, eta egun bakoitzean arte eszeniko edota arlo artistiko bat landuko dute.

Hauek dira eskainiko dituzten ikastaroak: musika elektronikoaren edizioa, soinu eta argi teknika, unibertso transmedia, rapa, dantza urbanoa, bideo- dj tailerra eta, azkenik, 'beat box' tailerra.

"Tailerrak praktikoak izango dira, eta sorkuntza kolektiboa sustatzea dute helburu. Nerabeei euskaraz erakargarri zaizkien tresnak eta baliabideak eskaini nahi zaizkie", azaldu dute Faktoriako kideek.

Tailer bakoitzaren prezioa 3 eurokoa izango da eta Internet bidez eman daiteke izena, www.faktoria.eus atarian.

babestutako edukia

IRAILA - ABENDUA
2022

EMAKUME SORTZAILEEN ZIKLOA

Emakumeok ardatz, zazpi pieza hamaika modu sorkuntzaren bizipena gorpuzteko

AZAROAK 27/ 18:00
MATRIUSKA
ANTZERKIA
TTAK TEATROA ETA KAMIKAZ KOLEKTIBOA

URRIAK 22/ 21.00
HABIAK
KONTZERTUA

ABENDUAK 16/ 20:00
BEGIAK ZERUMUGAN
POESIA ETA MUSIKA
MIREN AGUR MEABE ETA DANA MOYA

AZAROAK 6/ 17:30
PIZTU! EmakumeON ENERGIA
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA
EIDABE

ABENDUAK 30/ 20:00
AIARALDEKO EMAKUME* SORTZAILEAK
DIZIPLINA ARTEKO IKUSKIZUNA

AZAROAK 11/ 20:00
EMAKUMEAK
DANTZA GARAIKIDEA
NODE

7 SAIOETARAKO BONOA:
Faktoriako Bazkideak: 30€
Faktoriako Ez-bazkideak: 40€
Ikasle eta langabetuak: 25€

BANAKAKO SARRERAK:
Faktoriako Bazkideak: 6€
Ez-Bazkideak: 8€
Ikasle eta langabetuak: 5€

Emanaldien ostean tokiko produktu ekologikoekin afaltzeko aukera egongo da.
Erreserba: 722 84 67 62.

kirola

ARIETTA RUIZ GOIRI (Orozko, 2010) OROZKOARRAK HEZTE KLASIKO KIROL HIPIKOAREN ZILARREZKO DOMINA ESKURATU ZUEN ESPAINIAKO TXAPELKETAN. EZUSTEA IZAN ZEN BERARENTZAT ETA HURRENGO URTEKO TXAPELKETAN PENTSATZEN ARI DA JADANIK.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Madriletik itzuli zara Espainiako Txapelketako zilarrezko dominarekin, zelako esperientzia izan da?

Oso ona. Ez nuen espero. Berez, nire helburua finalera heltzea zen. Hortaz, domina lortzea poztasun eta alaitasun handia izan da. Izan ere, aintzat hartu beharra dago nire zaldia oso gaztea dela etez dakidala ariketa asko nola egin.

Nolakoa izan da txapelketako giroa?

Kanpotik itxura solemnea dauka, baina gure artean giroa oso ona da eta elkar laguntzen dugu. Oro har, ondo konpontzen naiz hipikako lagunekin, nik laguntzen diet zaldia eramaten eta eurek gauza bera egiten dute.

Nola hasi zinen kirol hau egiten?

Betidanik gogoko izan ditut animaliak, eta horien artean zaldia. Bost urterekin izena eman nuen hipikan eta hasi nintzen zaldian ibiltzen. Hau da nire lehen lehiaketa hipikan.

Nola definituko zenuke kirol hau?

Ahalegin handia exijitzen du eta zaldiarekin asko landu behar da harremana. Hain zuzen, talde bat osatzen duzu animaliarekin eta zu ez bazara gai zerbait egiteko edo ez bazara prest sentitzen, zaldiak ere ez du egingo. Izan ere, berak sentitzen du zuk sentitzen duzuna.

Hezte klasikoan zenbait ariketa egin behar dira eta epaimahaiak nota jartzen dio egin duzun horri.

Amazona ona izateko zer behar da?

Binomio ona osatu behar duzu zaldiarekin eta beharrezkoa da asko praktikatzea. Harreman ona ezinbestekoa da, animaliarekin eta irakaslearekin. Gero zure partea egin behar duzu eta zaldiak ere.

Zergatik hautatu zenuen Esferico zure zaldia izateko?

“Zu ez bazara sentitzen gai ariketa bat giteko, zaldiak ez du egingo, zuk sentitzen duzuna sentitzen baitu”

duzu eta horrela sortzen da. Berak ulertzen nau ni eta nik ere ulertzen dut bera.

Zenbat entrenatu behar duzu astero?
Astero lau aldiz, asteburua barne. Dena den, lehiaketa badago, saiatzen naiz bost edo sei aldiz entrenatzen astero.

Eta egun batean ez duzunean entrenatzen, nabaritzen duzu zaldiak falta sumatzen duela?
Ez, baina noizbait ez du entrenatzeko gogorik, edo ez daki nola egin ariketa bat, edo ez du ulertzen zer egin behar duen. Hala ere, asko ulertzen du.

Zuk zure kabuz landu behar duzu zerbait?
Ez, zaldiarekin osatzen dut binomioa eta bat gara. Finean, guztia egin behar dut berarekin.

“Kirol honek oso itxura solemnea du kanpotik, baina elkar laguntzen dugu lehiakideok”

Behin zilarrezko domina lortuta, zein helburu duzu orain?
Urriaren 29an Iparraldeko Federazioen Kopan lehiatuko naiz Logroñon, eta gero hurrengo urtean kategoria aldatuko dut, haur kategoriara igaroko naiz. Espero dut asko lan eginda Espainiako Txapelketan aritzea berriro.

Nolakoa da kirol hau egitea? Norbait gehiago ezagutzen duzu eskualdean aritzen dena?
Ez, ez dut inor ezagutzen, baina nire lagunek babesten naute eta horrek indarra ematen dit.

Zer ematen dizu kirol honek? Zergatik motibatzen zaitu horrenbeste?
Kirol honek zaldiarekin konfiantza edukitzea ematen dit eta asko motibatzen nau ikusten dudalako hitz egin gabe ulertu ahal garela eta elkar lagundu.

Zergatik da berezia amazona eta zaldiaren arteko harremana?
Zaldiarekin 24 orduz ez bazara bizi ere, maskotekin egiten dugun moduan, honek leialtasuna erakusten dizu. Ez da pozik jartzen ikusten zaituenean, txakurrek egiten duten moduan, baina sentitzen dut ezagutzen nauela eta elkar ulertzen dugula.

“Esferico beste zaldi bat dela dirudi nirekin dagoenean, ausarta baita”

Andoni nire entrenatzaileak ekarri zuen eskolara, ni hasi nintzen gidatzen eta harreman ona izan genuen hasieratik. Ondo konpondu ginen eta nire gurasoek erabaki zuten nire urtebetetzean oparitzea. Hau da nire lehen zaldia.

Nola definitzen duzu Esferico?
Oso ona eta ausarta da. Heldu zenean beldurtia zen, baina nirekin dagoenean beste zaldi bat dirudi, ausarta baita. Egia da noizbait izutzen dela, baina ni gai naiz bera lasaitzeko.

Nola landu duzu harreman on hori Esfericorekin?
Ez da lantzea, animalia ondo tratatu behar

kirola

MENDIZALETASUNA

Goizale aterpearen jaiak lagun ugari elkartu zituen Ponatan

Dozenaka lagun elkartu ziren aterpean. **Mendiko Lagunak**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Mendiko Lagunak taldeak Ponatako Goizale aterpearen jaia ospatu du asteburuan. Urriaren 1a eta 2a bitarte, azpiegitura atondu eta aisialdirako tartea uztartu dituzte. Bertan antolaturiko ekintza desberdinak klubeko kideen topaleku izan dira.

ESKUBALOIA

Amurrioko gazteek ere eskubaloia praktikatzeko aukera izango dute aurrerantzean

Zaraobe institutuan egiten dituzte entrenamenduak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Eskolaz kanpoko ekintzen artean, eskubaloian aritzeko aukera izango dute aurrerantzean Amurrioko gazteek ere. Laudio BC taldeko kideen eskutik, taldea osatu dute herrian, hainbat urtez kirol hau desagertuta egon ostean.

Taldeko arduradunek aurreratu dutenez, aurten ez dute txapelketetan lehiatzeko asmorik, baina bai Laudioko klubarekin lagunarteko partidak egiteko asmoa.

Astearte eta osteguna-tan hasi dira entrenamendu saioak egiten, 18:30etik 19:30era Zaraobe Institutuko frontoian. Oraindik ere taldean parte hartzeko aukera du interesa duen gazte orok, eta, jakinarazi dutenez, "izen emate guztien arabera erabakiko dute bigarren talde bat atera edo ez". Taldera batzeko bi bide daude: 616069978 telefonora deituz edo conelaudio@gmail.com helbide elektronikora mezu bat igorriz.

ATLETISMOA

Euskadiko txapeldunorde izatea lortu du Koldo Ayesta Laudio Atletismoko korrikalariak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Bikain heldu dio Laudio Atletismo klubak kirol denboraldi berriari. Barakaldon izan da asteburuan 10.000 metroko Euskadiko ibilbideko txapelketako zita, eta bigarren postua erdietsi du Koldo Ayesta lasterkariak. "Denboraldia indartsuago hasi dugu, ahal bada", azpimarratu du kirol elkarteak sare sozialetan. "Jakinarazi behar dizuegu Koldo Ayesta Zaballa gure atleta hirugarren izan dela proban, eta bide batez Euskadiko txapeldunordea", nabarmendu dute.

10.000 metroko ibilbidea 31 minutu eta 41 segundotan bukatu zuen korrikalariak, "denbora zoragarria" taldearen iritziz. Laudio Atletismo taldeak kirolariaren lana goraipatu du: "Zorionak Koldo! Eskerrik asko zure ahaleginagatik eta Laudioko zein Atletismo taldeko izenak eramateagatik". Ayestarentzat ez da sentsazio berria podiumera igotzea, hainbat aldiz kokatu da lehen sailkatuen artean eta, adibidez, duela bi urte Zumaiako Herri Lasterketa irabazi zuen.



herriko plaza

Iraia

Zorionak Iraia! Oraindik urte asko ditugu batera, zure erronka denak ospatzeko! Zure hurrengo eskapadan gonbidatu gaitzazu!!

Lagunak

Haizea

Zorionak Haizea! Argazkilari eta modelo onenari, MUXU HANDI BANA! Zure shelfiak jasotzen jarri dezagun, TOPA!

Lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 19an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

	2						8	
			5		2	7		3
	5			6		4		
		4					3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ERRAZA

	3		7					6
4					9		8	3
	7			2	3			5
6			4					
	5				2	6		7
		4	3		5			
	6		8		4	5	3	
		3	2	5				
5	4			3	7			9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Emakume sortzaileen zikloaz gozatzeko sei saiotarako bonoa zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Emakume sortzaileen zikloaz gozatzeko bono baten zozketa
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** urriak 21, 13:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

HAUR BESOETAKOA. ITSASOAN URAK HANDI

Idazlea: Unai Iturriaga eta Alex Sanvi
Argitaletxea: Ikastolen elkartea

Argitaratzen den hirugarren komiki bilduma dugu hau. Haur Besoetakoak abentura ugari biziko ditu "Aimek (aita eta amek)" haurren hiria hartu dute, horri aurre gingo dieto pertsonaiek.

LUAREN ITZALA

Idazlea: John Andueza
Argitaletxea: Elkar

Gazteek bizi izan duten itzialdiaz hitz egiten duen liburua da, debekuez naskatuta jai klandestinoak egiten hasten dira utzitako eraikin zahar batean. Adiskide baten hilketak barrenak nahastuko dizkie eta beraien artean salatzen hasiko dira.

EGURREZKO EGITURAK

AZALPENA:
Gaur egun modan jarri dira egurrezko elementuak. Emi Pikler, Maria Montesori, Rudolf Steiner... bezalako pedagogoen materiala modan jarri da. Ematen du ezin dela etxerik egon horrelako materialik gabe.

Material hauek ordea oso garestiak izaten dira, merkatuak ondo daki modan dagoenari zer nolako prezioa jarri.

GOMENDIOAK:
Nola erabili beraz horrelako materialen onurak diru asko gastatu gabe:

1. Erosteko hautua egiten bada ondo begiratu zer den erosten dena, zelan eginda dagoen. Merkatuan denetarik dago eta dena salduko da onuragarri moduan baina dena ez da onuragarria. Irakurri eta informatu erosi aurretik.

2. Aukera merkeago bat izaten da ingurko arotz batek sortzen badu produktua. Gainera prosezua bizi ahal izango duzue sortze bide osoan.

3. Merkeena etxean topatu ditzakegun elementuak baliatzea da. Kasu honetan ere garrantzitsua da irakurtzea eta informatzea. Adibidez, haurraren mugimendua ahalbidetzeko elementuez ari bagara, sendoak izan behar dira, ez mugikorrak, mugimendua ahalbidetu behar diote ez mugatu. Barroteak dituzten elementuak interesgarria izaten dira zutitzen ikasten daudenentzako.

4. Eraikuntza piezak eta pieza sentikorrak ere etxean topatu daitezke. Egoekiena material naturalez egindako gauzak topatzea da, egurra, kortxoa, metala... Egurrezko piezak adibidez, norberak sortu ditzake listoi batzuetatik habiatuta, edo tapak erabili, goilarak, pintzak, tela zatiak.. Adin bakoitzean gauza ezberdinak eskaini ahal dira. Berziklatutakoak eta etxean topatuak.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Tabu

Gaurkoan gai Tabuez hitz egin nahiko nuke, jendartean gaudenean hitz egitea kostatzen den gai horietaz, gure barrenak nahastu eta zanpatzen duten arren gutxitan jendarteratzen ditugun gai horietaz.

Ez da erraza prosezu gogorrak bizi direnean hauek azaleratzea eta hauek kontatzea, kaletik "zelan zaude?" galdetzen digutenean gaizki egonda ere ondo umil eta lotsati batekin erantzuten dugu. Ez soilik ezagun ditugun pertsona horiekin, konfiantzako jendearekin ere berdin jokatzen dugu.

Presio ikaragarria sentitzen hasten dira pertsonak (emakumeak batez ere) hogei eta hamar urteren bueltan gurasotasunarekin. Jendarteak erloju krudel bat jartzen du martxan eta kanpai ho9ts bakoitzak barrenak nahastu egiten gaitu. Soinu hauek gertukoengandik eta urrunago kokatzen diren pertsonengatik etortzen dira, batzuetan urrun daudenei erantzutea errazagoa egiten zaigularik.

Nabaritzen den presio hori ez da erraza kudeatzen, egoera ezberdinak bizitzen dituzten pertsonentzat. Asko eta askok zailtasun handiak dituzte haurrak biologikoki izateko eta egoera horretan egotean, labankada moduan hartzen dituzu jasotzen diren hainbat eta hainbat komentario. Beste batzuk, biologikoki haurdun geratu eta modu naturalean abortatu egiten dute. Badaude asko eta asko ere, prozesu horretatik pasa nahi ez dutenak eta haurrik izan nahi ez dutenak. Badaude kasuak ere, haurra adopzio bitartez izan nahi eta paper artean itotzen direnak.

Edozein delarik kasua, oso gutxitan hitz egiten da kontu hauez publikoki, baina, komentario asko eta jasandako presioak sortzen duen mina ikaragarria da. Gaia naturalizatu beharra dago, kalera atera, konfiantzazko eremuetan hitz egin. Eta komentario bat, epaiketa bat, gorputzera begirada konkretu bat egin aurretik pentsatu zer nolako mina sortu dezakeen. Haurdun ez dagoen norbait, haurdun ez badago edo ezin duelako edo ez duelako nahi da eta bi kasuetan egin daitezkeen komentarioak mingarriak suertatu daitezke. Begiratu norbere zilborrera eta ez ondokoen bizitzetara!

¡Spilutxo, ¡Spilutxo...

Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi ispilatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer ote?



Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokion izena, hizkiz hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.



Mezu gordea

Zer esaten ari ote da neskatoa? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratuz, eta berehala jakingo duzu.

SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura

Peter Stewart

Edgar Carrasco

JAIOTERRIA
APURIMAC, 1982

BIZILEKUA
URDUÑA

BIDAIAREN XEDEA
LAN EGITERA ETORRI ZEN EUSKAL HERRIRA

“Urduñak nire herria gogorarazten dit; mendi garaiagoak baditu ere, oso antzekoa da”

Nolakoa izan da zure etorrera?

Otsailean iritsi nintzen; beraz, 7 hilabete daramatzat Urduñan bizitzen. Ez da asko. Emigratzea oso zaila da, batez ere, familia zure herrialdean uzten baduzu. Gogorra da, baina horrelakoa da bizitza. Aurrera egin nahi duzunean edo zure seme-alabei bizitza hobea utzi nahi diezunean, esfortzuak egin behar dira. Triste samar nago, baina ondo oraingoz. Eskerrak eman nahi dizkiet bizilagunei hemen Urduñan izan dudan harreragatik.

Zertara etorri zara Urduñara?

Lanera etorri naiz. Emigratzeko aukera bat agertu zitzaidan. Senide batzuk Arnedon bizi dira, Errioxan. Bertan, ahizpa eta lehengusina bat mojak dira, eta haien bidez Urduñako klaratarrekin harremanetan jarri nintzen, haien baratze ekologikoan lan egiteko. Nekazaria naiz ofizioz, betidanik egin dut lan lurrean.

Urduña gustatu zaizu? Erraza izan da egokitzapena?

Bai, Urduña gustuko dut nire herria gogorarazten didalako. Apurimacekoa naiz eta mendi garaiagoak baditu ere, oso antzekoa da. Hiri honek landaretza ona du, animalia asko... Gustura nago hemen. Machu Picchuren antza ere badu, harrizko hiria delako. Hemengo kultura, aldiz, oso desberdina da.

Zertan bereizten dira?

Urduña, oro har, oso ordenatua da. Kaleak garbi daude eta garraiobideak egokiak dira. Hizketan edo agurretan, aldiz, aldea nabariagoa da. Nire herrian “egun on”, “arratsalde on” eta “gabon” esaten dugu beti; hemen, berriz, “kaixo” esaten dizute noiznahi. Txikikeria izan arren, horrek talka egiten du txikitatik irakasten digutenarekin.

Bi herrietan tokiko hizkuntzak hitz egiten ditugu.

Bai, eta atentzioa deitu zidan. Nire herrialdean ere gaztelaniaz berba egiten dugu, eta kitxua ere badaukagu, jatorriz antzinako inkena dena. Hemen, Urduñan, euskaraz hitz egiten da eta horregatik ere Peruko oroitzapenak ekartzen dizkit.

Eskerrak kitxua hitz eginez jaio nintzela. Nire familiak kitxua menperatzen du, baina ez da hain ohikoa. Gaur egun, bertoko politikariak kitxua ikasten ari dira, baita ikastetxe eta unibertsitateetako ikasle ugari ere. Aurrerapausoa da.

Hemen geratzeko asmoa duzu?

Beste herrialde batera emigratzea oso zaila da, baina arrazoi bati erantzuten dio. Nire familia hona ekarri nahi dut. Egoera politikoa dela eta, nire herria gaizki dago azkenaldian; ustelkeria handia dago, eta nire seme-alabak handik atera nahi ditut. Familiarik gabe, nire seme-alabarik eta emazterik gabe, hemen egotea oso gogorra da. Emigratzeko prozesua oso araututa dago eta latza da aurrera egitea.

Zer espero duzu Urduñatik etorkizunean?

Urduñako beste herritar bat izan nahi nuke, besterik ez. Nire familia hemen eduki nahi dut eta hiriarentzako gauza handiagoak egin, alkatea izatea, esaterako (barreak).. Txantxetan diot, baina gustatuko litzaidake. Zergatik ez?

PERU



DESKRIBAPENA
Kitxuaz eta aimaraz ‘Piruw’, Andeen eta Ozeano Barearen artean kokatutako Hego Amerikako mendebaldeko estatua da, Ekuadorrekin eta Kolonbiarekin iparraldean eta Brasilekin ekialdean muga egiten duena. Munduko zibilizazio-historia luzeenetakoa du

AZALERA
1.285.216 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
32,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Gaztelania, aimara, kitxua eta hizkuntza indigenak.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Sofía Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ausolan
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
G! Graf!k Telleria 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
araba álava foru aldundia diputación foral
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA